

# BALIO PROPOSAMENAK

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

- Guk konpontzen dugun behar edo arazoa jendea etxera bakarrik itzultzen denean beldurrik ez sentiaraztea da. Hau da, askotan etxera itzultzean zerbait gertatuko zaigun beldur izaten gara, bortxaketak, lapurketak erasoak... Honek beldurra sorrarazten digu eta gure helburua beldur hori desagertaraztea eta gizakiok seguruago sentitzea da.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

- Guri bereizten gaituena berritasuna da, hau da, orain arte ez dugu horrelakorik izan. Bestetik, gaur egun, tamalez, gehienok beldurra sentitu izan dugu bakarrik kaletik goazenean, horregatik, gure ustez bezeroak prest egongo dira hau ekiditeko eta horretarako ordaintzeko.
- Erloju guztiaren prezioa 60€koa izango da. Bestetik, erlojuarentzat uhal gehiago erosi nahi badituzu uhal bakoitzak 5€ko prezioa izango du.